

MARKINA-XEMEIN / Zer irakurri, entzun edo ikusi jakiteko gida atera du herri bibliotekak

Ume, gazte eta nagusiei zuzendutako 108 lan batzen dira zerrendan, euren artean bertoko idazle eta musikarienak.

E. Mugartegi

Zer irakurri, ikusi eta entzun gomendatzen duen gida atera du herri bibliotekak. Ume, gazte eta nagusiei zuzendutako 108 lan batzen ditu liburuxkak.

Batez ere, oporrak heltzen direnean asko izaten dira zer irakurri, ikusi edo entzun dezaketen galdetzen dutenak, azaldu dute. Galdera horiei erantzuten die herri bibliotekak atera duen gida liburuxkak. Lanen %67 euskarazko produktuak dira eta %20 DVD edo CDak. Gehiengoa euskaraz izaten ahalegindu gara; teknologia berriak ere sartu ditugu, azaldu du Igor Idoeta herri bibliotekako arduradunak.

Gida osatzen duten lan gehienak 2008koak dira, baina badaude zaharragoak ere. Gutxi ezagutzen diren lanak dira, baina merezi dutenak, zehaztu du Idoetak. Horrela, esate baterako, Jabier Muguruzaren Nire Gorputza CDa aukeratu dute. Gazteentzat ondo dagoen lana da, esan dute. Canciones infantiles y nanas de baobab liburua eta CDa eta Anda con ojo: fotografia matematica ere aukeratu dituzte. Lehenengoa 2005ekoa da, baina interesgarria da eta merezi duela uste dugu; bigarrena argazkigintzakoa da, aitatu du Idoetak. Horretaz gainera, komikiak ere sartu dituzte zerrendan, batez ere nagusiei begira.

Bertokoen lanak

Lanak adineka sailkatuta daude. Horrela, ume, gaztetxo, eta gazte eta nagusientzako zerrenda zehaztuta dago. Gurasoei begira egindako zerrenda ere badago, baita bertoko idazle eta musikariek ateratako lanak ere. Horietan, esate baterako, Ana Urkizaren Amak plastakoa eman dit, Kirmen Uriberen Bilbao-New York-Bilbao edo Angel Ugartebururen Milloitik mundura liburuak agertzen dira, besteak beste.

Musikari dagokionez, Kemen Lertxundiren Galdutako zubixak, Tuboskapiren CDa edo Keu Agirretxeren Une Akustikoak lanak sartu dituzte zerrendan.